

# Liburu bidaiariak



**J.M. Carrere Zabala**

Mikelazuloko kidea

**B**ada Kolonbian maisu bat astoa hartuta inguruko etxaldeetara abiatzen dena. Astoa uhaletik helduta mendiko bidezidorretan barrena doa. Astakeri galanta egiten du maisu honek irtenaldi horrekin. Astoak daraman zama banatan txartela dago idatzita: Biblioburro. Ezjakintasunaren irudirik zabalduena, artaburukeriaren metafora unibertsalena, kirtenkeriaren haragitze mundiala, astoa, ezjakintasunaren aurka, artaburuak burua besterik izan ez dezan, kirtenkeriak kirtenetik heltzeko liburuz gainezka doa bidezidorretatik barrena. Haur eta helduak zain daude. Maisuak zuhaitzaren azpian zabaltzen ditu liburuak, eta, ondoren, nahi duenak aukeran dituen liburuetatik gustukoena hartuko du. Bitartean maisuak liburuaz mintzatzen da. Handik ordu batzuetara, astoa berriro zamatu eta etxera itzuliko da maisu ibiltaria bere Asto Liburuzalearekin. Etxean ehunka liburu ditu kaxatan gordeak; haiek antolatzeko ez astirik ez lekurik. Ez dute luze iraungo ordea biltegian, laster asto gainean igoko baitira beste batzuk, bideetan barrena letrak barreia daitezten.

Parkeko banku batean liburu bakartia dago. Ahaztuta, akaso. Inor ez dabil inguruan. Norbait eseri eta kuriositatez liburuak gaitetik begiratzen du. Denbora pasaz edo, irakurtzen hasten da. Denbora gutxian erabat sartuta dago narrazioan. Etxera joan behar eta liburuak berarekin eramaten du, ezin baitu istorioa nola amaitzen den jakin gabe liburuak abandonatu. Bi egunetara banku berean uzten du. Handik gutxira paseoan dabilen pertsona eseri egiten da. Liburuak ikusten du. Gaitetik begiratzen du.

Santiago Alba idazleak zioen, Mikelazulo Elkartearen egindako gosari-hizketaldian, egun gauzen balioa galtzen ari garela, balioa ez balorea. Berehala baztertzen omen ditugu gauzak, zahartzeko aukerarik eman gabe. Ez dugu hartzen denbora gureak egiteko, gure bizitzaren

parte izateko. Zaharra kondentatua dago; urtaroka banatzen eta erosten ditugu arropak; gure ipurdia-  
ren forma hartzeko astirik eman ez diogun aulkia modaz pasarazten dugu azkar. Eta liburuak ez dute hilabete ematen liburu-dendetako erakuslehoan. Papera pantailagatik ordezkatzeko dugu berritasunaren izenean. Liburuak hautsa eta leku gehiegi hartzen duen gauza da. Eta udal liburutegiak ikastegi bihurtzen dira azterketa garaian. Liburuak ez da, ordea, objektu hutsa. Liburuak pertsonen pentsamenduen gordelekua dira, eta zentzu bakarra hartzen dute beste pertsona batek irakurtzen duenean. Liburuak pertsonen azalpena da, ona edo txarra; onerako edo txarrerako. Liburuak beste norbaitekin jartzen gaitu harremanetan, harreman intelektualean. Eta pentsamenduak denbora behar du. Denboran beratzea.

Liburutegi bat ezin da izan gordeleku hutsa. Objektuen pilatzailea. Asto gainean bidezidorretan doan bidaiaria behar du izan. Banku batean kuriositatearen grina pizten duen liburu ahaztua.

Denborari denbora ematen dion etxea. Pentsamenduari lau hormak kentzen dizkion igeltseroa.



<http://www.mikelazulo.com/>